



**BERRITU DEZAGUN
BLAS DE OTERO PLAZA**
Partaidetza prozesua

**RENOVEMOS LA
PLAZA BLAS DE OTERO**
Proceso Participativo

**Martxoak 24 eta 25
19:30etan
24 y 25 de marzo a las 19:30**

**EGIAko UDAL HAURTXOKOAN
En el HAURTXOKO MUNICIPAL
de EGIA**

Afotxakia dorne azpian



Donostiako Udalak
Ayuntamiento de San Sebastián

www.donostia.eus/partaidetza



Herri
Partaidetza
Saila
Donostia Udalak



BLAS DE OERO PLAZARI BURUZ MARTXOAREN 24an ETA 25ean EGINDAKO BI PARTAIDETZA SAIOEN EMAITZAK

HASIERAN EMANDAKO EDUKIAK

Aurrekariak

Blas de Otero plaza, "Kandisky" edo "Portaviones" plaza ere deitua, Egia auzoan dago, Atotxa dorrearen eta Tabakaleraren artean. Azken 30 urteotan hainbat jarduera egin dira, baina ematen du ez dutela lortu erabilera egokiko plaza publikotzat hartzea.

Gainera, azkenaldian, plazaren egiturazko arazoek azpian dituen garajeetan kalteak eragin dituzte, eta erabiltzaileek gertakari handiak jasan behar izan dituzte ur arazoak direla eta.

Laster, espazio hau Tabakalera berriaren ingurunearen baitan egongo da, eta, eremu honen egoera kontuan hartuta, hobekuntza irtenbideak bilatu behar dira, etorkizuneko ingurunearekin gehiago bat etorriko direnak.

Gainera, plazaren azpian Musika eta Dantza Eskolaren areagotze lanak gauzatzen ari dira, eta, beraz, une honetan arrazoi gehiago daude plaza sakonki eta osorik birmoldatzeko.

Egingo dugun lanaren helburuak

- Guztion artean zehaztea plaza erabilerak eta banaketa.

Ezin ukatuzkoak


- Oinezkoen igarobideak bermatu behar ditugu.
- Ezin dugu areagotu aparkalekuen kopurua.
- Diseinu irisgarri batean pentsatu behar dugu, puntu kritikorik gabea.
- Ingurunearekin bat datorren irtenbidea bilatu behar dugu.
- Erabilera publikoko eta bizikidetzako plaza bat izan behar du, erakargarria dena eta elementu bereizleren bat daukana.
- Inguruko merkatarientzako aukerak irekiko dituen, baita gizartearen eta kulturaren arloko ekintzak egiteko ere, besteak beste.

Egutegia

- PARTE HARTZEKO LANTEGIAK: Martxoaren 24an eta 25ean, 19:30ean
- proiektua

Aurrekontua

-1.300.000 €



PARTE HARTZAILEAK



Irudian agertzen den moduan(Puntu horiak) , partaideak plazatik hurbil bizi dira nagusiki.
Hala ere, ikus daiteke Ametzagaina, Tejeria eta Carmengo Andra Mariaren kaleetako pertsonak ere parte hartu dutela.

1. SAIOKO PARTE HARTZAILEAK

HERRITARRAK NORBERE IZENEAN

Emakumeak 21

Gizonak 13



ELKARTEAK

Dandai emakume elkarte
Egia Bizirik
ShopssDonostia
Donostia 1km
Ttanttan kun elkarte

UDALAREN ORDEZKARITZA

Hiri Azpiegituren eta Bide Publikoak Saila:

Alfonso Vazquez
Imanol Iturria
Oscar Ortega

Mugikortasun Saila

Jose Ramón Ordoñez

Herri Partaidetza Saila

Amaia Agirreolea
Olatz Mujika
Eva Esnal

Egiako Udal Hargunea

Ainara Gonzalez
Ainara Peña

BESTE BATZUK

TBK

Leire San Martin
Egiako Frantziskotarrak

2. SAIOKO PARTE HARTZAILEAK

HERRITARRAK NORBERE IZENEAN

Emakumeak 16
Gizonak 18



ELKARTEAK

Dandai emakume elkartea
Egia Bizirik
Shopss Donostia
Donostia 1km

UDALAREN ORDEZKARITZA

Hiri Azpiegituren eta Bide Publikoak Saila

Alfonos Vazquez
Imanol Iturria
Oscar Ortega

Mugikortasun Saila

Jose Ramón Ordoñez

Herri Partaidetza Saila

Amaia Agirreolea
Olatz Mujika
Eva Esnal

Musika eskola

Mikel Mate

Egiako Udal Hargunea

Ainara Gonzalez
Ainara Peña

BESTEAK

TBK

Aritz Azkarraga
Leire San Martin

Egiako Frantziskotarrak

GONBIDATUTAKO ARKITEKTURA ESTUDIOAK

1. Fernando Ruiz de la Casa
2. Miguel Salaberria eta Lur Paisajista
3. URG

1. TALLERRA

Tailerretako edukien artean lehentasunezko xedea da plazaren eta inguruen gaur egungo egoera lantzea erabilerei dagokienez.

Plaza birmoldatzeko proiektuarekin lortu nahi denaren aurkezpen orokorra egin ondoren eta partaidetza prozesua zertan datzan azaldu ondoren, banakako gogoeta ariketa bati ekin genion. Ondoren, gutxi gorabehera 6 pertsonako taldeetan lanean aritu ginen, eta osoko bileran jaso ziren taldeen ekarpenak.

Dagona ezagutzeko denbora

Ze erabilera ditugu? Eta inguruan?
Plazak gaur egun egoki erantzuten dio dagoen behar garrantzitsuren bati?

Asmatzeko denbora

Ze erabilera faltan ditugu?
Eta sobran?

Gaur egun zein erabilera ditu plazak?

- APAKARLEKUA
- HAUR PARKEA
- GRAFITEROAK
- OINEZKOENTZAKO PASABIDEA
- AUZOAK GUTXI ERABILTZEN DU OROHAR.

Zeintzuk dira erabilera Plazaren inguruan?

- ARKUPEETAN:
 - ETXEGABEKOEN BABES LEKUA
 - BOTELLOIA
 - PIXATOKIA
 - TXAKURREN PIXATOKIA
 - EURIA EGITEN DUENEAN PASEOA
 - ETA EGOTeko LEKUA.



- ERREPIDEA
- ETXEBIZITZETARAKO SARBIDEA
- TABAKALERAREN EGUNGO PROGRAMAZIOA
- JUBILATUEN EKIMENAK
- TREBESKA
- MERKATARITZA JARDUERA ESKASA

Gaur egun dagoen bezala, plazak egoki erantzuten dio premia garrantzitsuren bati?

EZ DIO EGOKI ERANTZUTEN PREMIA BAKAR BATI ERE.

Zee erabilera daude soberan?

- APARKALEKUAK
Gai honetan ados gaude gaur egun plaza bat eta aparkaleku bat ezin direla bizikide izan, eta, beraz, nagusiki uste da aparkalekua kendu egin behar dela plazatik; hala ere, eskatu da inguruan neurriak aztertzeke aparkalekuen gutxiagotze hori nolabait konpentsatzeko: TAOrik ez edukitzea Musika Eskolaren alboko eta atzeko plazen jabe diren egoiliarrek, garabiaren lokalak aparkaleku publiko gisa erabiltzea eta abar.
- KOTXEEN PASABIDEA, LARRIALDIETAKO ETA HORNIDURAKO ZERBITZUENA IZAN EZIK.

Zer erabilera sumatzen ditugu faltan?

- FAMILIA, GAZTE ETA HELDUENTZAT TOPAGUNE.
- EKIMEN KULTURALERAKO GUNEA, MUSIKA, DANTZA, ETA ABAR...
- AUZOKO MERKATARITZA SUSPERTZEKO GUNEA
- EKIMEN IBILTARIAK (AZOKAK...)
- 6-10 ARTEKOENTZAKO AISIALDI/KIROL ARLOKO ERABILERA
- ADINEKOENTZAT AISIALDI/KIROL ERABILERAKO GUNEA.
- OINEZKOENTZAKO PASABIDEA.

PLAZA MUGIMENDUDUNA NAHI DA, IGAROTZEKOA , "BIZITZADUNA"

Saioa 21:15ean amaitu zen.

2. TALLERRA

Tailerraren edukien artean, lehenetsuneko xedea da aurreko egunean iradokitako erabilerak finkatzea eta lehenestea, eta erabilera horiekin lotutako elementuak identifikatzea.


Azkenean, plazak izan beharreko nolakotasunak eta irizpideak zehaztu ziren.

Aurreko tailerreko emaitzak berrikusi ondoren, TBK-ko kudeatzaileak Blas de Otero plazaren bizikide izango den TBK-ko arkitektura proiektuaren zati bat aurkeztu zuen, hau da, iparraldeko fatxadarena, lurpekoa birmoldatuta.

Ariketa hori beharrezkotzat jotzen da, horien berri eman ondoren, balioesteko TBK-ko proiektuak baitan hartzen ote duen Blas de Otero plazarako proposatutako erabileraren bat.



ERABILERAK LEHENESTEKO JARDUERAREN EMAITZAK





PLAZAK EDUKI BEHARKO LITUZKEEN KUALITATEAK

- DISEINUAK AHALBIDETZEA ERABILTZAILEEN ARTEKO BIZIKIDETZA LASAIA.
- INGURUKO EGOILIARREI MOLESTA DIEZAIEKEN "GEHIEGIZKO" JARDUERARIK EZ HARTZEA.
- ELEMENTUAK EZ HIPOTEKATZEA HAREN ERABILERA: jarri edo kendu ahal izatea, edo, adibidez, lurrean margotutako lerroak...
- IREKIA.
- GARBIA.
- ARGIZTATUA.
- ORIGINALA.
- SEGURUA.
- IRISGARRIA.
- SEINALEZTATUA.
- GERIZPEA/EGUZKIA.
- URTE OSOAN ERABILI AHAL IZATEA.
- ASKOTARIKO ERABILERAK.
- INGURUKO MERKATARITZA AKTIBATZEA.
- MUGIMENDUA ETA IGAROTZEA DAUKANA.
- BELAUNALDIEN ARTEKOA.
- PUBLIKO ETA PREMIA MOTA GUZTIETARA EGOKITZEN DENA (haurrak, zailtasun fisikoak...).

Zenbait elementu proposatu dira planteatutako erabilerako

- ZUHAITZAK (Gaur egun dagoen zuhaitz ederra mantentzea esketzen dute)
- BANKUAK/ESERLEKUAK
- ESTALKI BAT
- KOMUNAK
- ITURRIA
- TXIRRINDENTZAKO APARKELEKUA
- XAKEAN ARITZEKO MAHIA

HIZKUNTZAREN TRATAMENDUA

Bi saioetan euskara eta gaztelania paretsu erabili dira.

Saioa 21:15ean amaitu zen

LAN SESIOEN BALORAZIOA



Bukaeran gogoratzen diegu partaide guztiei egun hauetan egindako lanaren informazioa jasotzen duen dokumentoa bidaliko zaiela. Aurrerago ere konbokatu zaie proieko basikoko propuesta kontrastatzeko eta beharrezko izanezkero azkeneko ikutuak emateko.

MILA ESKER GUZTIOI

